

# Kulturarteko Plaza Feminista\*

\* Informazio gehiago:  
[erabaki.hernani.eus/emakumeenetxea/](http://erabaki.hernani.eus/emakumeenetxea/)


Egileak: **Jaxone Usandizaga Ansa.**  
**Marta Luxán Serrano.**

**H**ernanin mugimendu feministaren aldarrikapenen oihartzuna ez da berria. Horren adierazgarri nabarmenena dugu egungo Plaza Feminista txiki geratu dela gai honetan lanean ari den jende eta talde guztien jardunerako. Horren ondorioz, Berdintasun Kontseiluaren eskaera kontuan hartuta, Udalak kulturartekotasunarekin eta feminismoarekin lotutako proiektuak lantzeko espazioa eskaini du.

Beraz, Kulturarteko Plaza Feminista izango dena gorpuzteko eta definitzeko prozesu parte hartzailea hasi zen pasa den ekainean, Aztiker eta Hiritik At-en eskutik. Lagun hauekin batera, prozesua kalabaza landarearen bizi zikloaren bidez marraztu dugu, bost fasetan: erein, ernatu, hazi, loratu eta bildu.

**Erein** fasea sorrera izan zen, bertan talde eragile eta bidelagun sarea osatu ziren. Prozesuaren antolaketaz eta jarraipenaz arduratu da talde hau. Azpimarratzekoa da, inguruko bizi ibilbidea eta jarrerak ezagututa, konfiantzan oinarritu dela sarea osatzeko dinamika: feminismoaren erdigunean dauden baloreei eutsita, elkar babesteari garrantzia emanda ekin diogu bideari. Harremana, pertsona batzuek beste batzuen iritziak eta irizpideak kontuan hartuta saretu da; oso jende ezberdina elkartu bagara ere, bidelagun parekideak izan gara.

Hazia **ernatzeko**, jardunaldi irekiak egin genituen eta bertan hainbat herritako emakumeen etxeen esperientziak eta erronkak entzun genituen. Orduan ere, inguratu ginen pertsonen artean, anizta-



suna zen nabarmena, adinari begiratuta, azal koloreari, egiteko moduei, jatorriari, beharrei eta bizi-tzaren ibilbideari dagokionean.

Ernatutakoa **hazteko**, bilera ireki sorta egin genuen, dinamikoak eta hainbat gai lantzea xede zutenak: proiektuak zein helburu eta ezaugarri izan behar dituen zehazteko.



Nahiz eta negua izan, **loratzeko** garaia ere iritsi zen: espazioaren banaketa eta funtzionamendua adostu genuen. **Kulturarteko Plaza Feministaren** eraikina nolakoa izango den amestu genuen elkarrekin.



Ereindakoa **biltzeko** garaian, oraingoz proiektua dena errealitate bihurtu dadin, Kulturarteko Plaza Feministak zer nolako funtzionamendua izan behar duen zehazten hasi gara.

Prozesu honen sustraia da iritzi, ideia eta ilusio ezberdinak trukatzeko, bakoitzak buruan duenetik abiatuta, guztiona izango den proiektua marraztu, gauzatu eta osatu arte.

Eta bide honetan feminismoaren zein kulturartekotasunaren ekarpenak ezinbesteko ditugu.

